



**BERANGOKO UDALA**  
**(BIZKAIA)**

Berangoko (Bizkaia) Udaleko Bozeramaileen Batzak, 2018ko maiatzaren 2an egindako bileran, EAJ-PNV, EH Bildu, DB-TU, PSE eta PP talde politikoen aldeko botoarekin, honako adierazpen hau onartu du:

**BERANGOKO UDALEKO BOZERAMAILE BATZORDEAREN ADIERAZPEN**  
**INSTITUZIONALA, 2016KO UZTAILAREN 7AN GERTATURIKO BORTXAKETAGATIK**  
**EMANDAKO SENTENTZIAREN INGURUAN**

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren sententzia jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an hainbat gizonek emakume bat bortxatu zuten, Berangoko udaleko bozeramaile batzordeak honakoa ADOSTU DU:

**LEHENIK.-** Udal honek eta Berangoko udalerriak bere babes, maitasun eta elkartasuna adierazten die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

**BIGARRENIK.-** Sententziak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu, eta, bereziki, jazotakoa sexu-abusu jarraitu gisa aitortu duelako. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko sententzia inpugnatu edo inpugnatuko duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

**HIRUGARRENIK.-** Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu sententzia honen aurrean, eta aldarriarekin bat egiten dugu.

**LAUGARRENIK. -** Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Berangoko udalerriak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen.

**BOSGARRENIK.-** Udal honek berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.



G. DEJOK-BATERRA

EH BILDU

EAJ-PNV

PSE-EE